



ERRENDERIARRA ILL ARTE!!

X A B I N

GOROSTOLA'tar PEDROTXO, txelista bikain eta erritar ohea dan orrek diyon bezela, naiz eta bere erritik urritu arkitu arren, bere amets eta oroimen guziyak, beti bere jaiotz erri maitagarri onetan omen dauzka. Ez da gutxiyorako!! Bejon daikela, Pedrotxo!!

Nik ere zerbait esan nezaket gai orretaz. Orain bi urte zuen artian arkitzen nintzan, ta orain berriro, Ipar Ameriketako New-York erri aundi onetan arkiturik, inoiz baño geyago gogoratzen naiz erri maite

orretaz, ain txikia izan arren!!... nolako gauz ikusgarriak dauzka gure ERRENDERIKO erriyak!!... Jaizkibel, San Markos, Ayako-Arria, ta beste gañontzeko mendi oyen babesian dagon erri onek, nondik ateratzen ditu orrenbeste abeslari, txistulari, bertsolari ta abar?

Nik uste det gure antzinako erritar ayen podola oraindik gure zañetan dagolako. Oraindik ez dira egun asko, nere anai Xabierrek idatzi zidan orain berriro or egindako Euskal festatzaz. Arriturik gelditu nintzan,

eta baita ere pozez beterik, ikusirik nolatan ainbeste abesbatz, zortzikote eta atzerriko ereslari onenak gure erri maite onetan bildu ziran, batzuek abesten eta besteak erestutzen...

Eta emen, erri aundi eta aberats onetan, zer dago? Maitetasuna urruti, laguntasuna urrutiago, emengo euskaldunak danak sakabanatuak. Nik, Juan Oñatibia emendik joan ezgeroztik, ez dakit zer dan abestutzia... Emen gaiztakeriya ta lapurkeriya besterik ez dago, eta jakiña nik nere biyotza alaitu nai det zuen artetik urruti arkitu arren.

Or joaten naiz bada eun urte bañan geyago dituan «La Nacional» bazkundera. Bertan geyenak galleguak dira eta jakiña, nerekin batera, tarteka, nere emaztea eta alaba joaten dira. Orregatik nere alaba ikusi ondoren, bertako agintariak esan zidaten bera lorearen erregiñetako ona izango litzakela, eta auteskunde gogor batzuek egiñ ondoren, garaille atera zan gure alabatxoa. Guk, bere gurasoak, zer esanik ez, poz aundiya artu genduben jakiñik gañera, lenengo aldiz euskal abizen eta izena dituan bat erregiñ ateratzeak. New-York'en erregiñ ateratzea eza baida errex!! Orregatik Errenderiko seme baten alaba orrela ateratzia, nere biyotzarantzat pozgarria da benetan.

*Errenderiko semea naiz ni
ezin nezake ukatu
itz txiro abek kantu onekin
egin nai ditut bukatu.
Aurrera erritarrak,
kale, baserritarrak,
beti erriya maitatu
umore on ta alaitasunez
Madalen jayak pasatu!!!*

Besterik gabe «OARSO'ko» idazle, erritar eta kanpotar danori, or dijoakizute nere bostekoa, maitasunez betea. Eresbatzako lagun danori, txistulari eta nere lagun zar, sendi, lengusu eta abar, nere oroipenik xamurrena.

Zuena beti, eta ERRENDERIARRA ILL ARTE!!!